



# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

## INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Egilea - Auteur : Terexa Lekumberri - Fred Berruet  
Iturria - Source : 1999ko irailaren 17an Fermin Muguruzarekin egin elkarriketaren transkripzioa  
Urtea - Année : 1999

## FERMIN MUGURUZA eta EUSKAL KANTUA

### **Kantari eta kantu-egilearen artean zoin da lehena ?**

Kantatzen hasi nintzen besteen kantuak hartuz. Adibidez gitarra ikasteko, beti besteen doinuak erabiltzen dira. Bainan berehala ere nere kantuak konposatzen hasi nintzen. 1982an, 18 urte nintuen eta punk mugimenduak eragin handia zeukan neregana. Gehien erakartzen ninduen zera zen : ez zinuela trebea izan beharrik, ez zenuen instrumentua menperatzeko beharrik gauzak adierazteko baldin bazeneuzkan. Ideia horrekin hasi nintzen gitarra ikasten, eta nere kantak konposatzen. Lehen akordeak ikasi bezain laster “El ultimo ska“ kantua asmatu nuen. Denek bezala hasi nintzen gogoko nituen kantuak jotzen : Stiff Little Fingers, Clash, Sex Pistols, Specials. Horien guzietan kantuak entsaiatzeko erabiltzen nituen eta berehala hasi nintzen kantu propioak sortzen : “El ultimo ska“, “Hernani“, “Nicaragua Sandinista“ eta “Sospechosos“.

### **Orduan erdaraz idazten zenituen eta euskara ikasi duzu ?**

Garai hartan ezer ez nekien euskaraz eta euskaraz egin genuen lehen kantua “Zu atrapatu arte“ izan zen. 20 urterekin egin genuen Kortaturen 5 kantuz osatu lehen maketa, 1984an. Bertan bertsiore batzuk baziren, hala nola The Business taldearen “Mierda de ciudad“ edo Stiff Little Fingers-ek egokitu “Hay algo aqui que va mal” kantua gaztelaratu genuen. Hor dena gaztelaraz zen, bainan jotzen hasi ginelarik bagenuen konpromisu bat herri honekin, hemen zegoen kultura nahiz hizkuntzarekin, eta horregatik erabaki genuen kantu bat euskaraz egitea. Hori “Zu atrapatu arte“ izan zen. Nik gaztelaraz idatzi nuen eta Triku bateri joleak euskaratu zuen. Konturatzen bazara gaizki egin zen, kantu berean hika eta zuka tartekatzen ditugulako. Gu ez ginen hortaz konturatzen ere. Bateri jolea euskaldun zaharra izanki, alfabetatu gabea zen eta beraz...Lehen konpromisua, beharrezkoa atxematzen genuena, hizkuntzarena zen, eta orduan azaldu genuen zenbait elkarriketetan Kortatu taldeak euskaraz abesten bukatu behar zuela. Hizkuntza ikasteko konpromisua hartu genuen, kantuak euskaraz sortzeko eta noski euskaraz abesteko. Lehengo diskoan beste euskarazko kantu bat sartu genuen “Sarri Sarri“. Horren idazteko AEK-ko barnetegi batean izena eman nuen, bainan gauzak ez ziren nik uste bezain laster aitzinatzen, eta laster gelditu nintzen. Bederen barnetegi horretatik sortu zen “Sarri Sarri“ abestia. 1985eko uztailan sartu nintzen barnetegian eta justu uztailaren 7an izan zen Sarrionandia eta Pittiren ihesaldia. Beraz kantu horrekin, 1985eko abenduan Kortaturen lehen diskoa plazaratu zen.



### **Zenbat denbora ezarri duzu euskara ikasten ?**

Ondoko urtean kasik asteburuero jo genuen, lau urteren buruan ia 300 kontzertu eman genituen. Bigarren diskoko 10 kantuetarik 3 euskaraz ziren. Gure asmoa hurrengo diskorako alde bat euskaraz eta bestea gazteleraz egitea zen, garai hartan kompakturik ez baitzen. Hori zen ideia. Bainan 1987an Tolosako barnetegi batean sartu ginen. Lau hilabete hartu genituen kontzerturik eman gabe, euskara lantzen joateko eta gauza seriozki hartzeko. Beste urteetan ere barnetegi batzuk egin genituen bainan oso ongi pasatzen baldin bagenuen ere, ez genuen gehiegi ikasten. Barnetegi horretan nere bizian eragin handia ukan duten jende batzuk ezagutu ditut : Olazagare idazlea eta Garbiñe Ubeda, urte batzuen buruan Negu Gorriaken bira bati buruzko liburu bat idatzi zuena. Horiek gure erakasleak izan ziren, eta garbi utzi ziguten Kortatuk talde euskalduna bilakatu behar zela, denbora gehiago hartu behar genuela euskara ongi ikasteko, ondoko diskoa osoki euskaraz egiteko. Hori da egin genuena, beste hilabete batzuk hartu lanean segitzeko, eta 1988ko ekainean plazaratu genuen Kortaturen “Kolpez Kolpe“ diskoa, dena euskaraz. Ondoko hilabeteetan, euskara gozatzen hasi nintzen eta Kortaturi agur erran genion, urte baten buruan beste talde bat sortzeko dena euskaraz adieraziko zuena. Beraz, batez ere lau hilabete horiek izan ziren, eta gero egunero bi ordu Irungo AEK-n sartua nintzen, beste urte bat eta erdi.

### **Burasoak euskaradunak dituzu ala ?**

Bai euskaldunak dira. Nere amak asko galdu du, bainan aitarekin orain euskaraz ari naiz. Irunen eta hego Euskal Herriko beste leku industrialetan hori asko gertatu da, hala nola Bilboko ezker aldean eta Eibarren. Etorkin asko etorri ziren. Frankismo garaian errepresio handia baitzen, euskara debekatua zen, eta nekazal guneetan gehiago mantendu bazen ere, gune industrialetan asko galdu zen. Nahiz burasoak euskaldunak izan, harreman guztiak erdaraz egiten ziren eta seme alabeeri ez zieten euskara erakusten. Beraz burasoek ez zidaten euskara erakutsi eta gero ikasi behar izan dut. Bainan orain bi seme alaba ditut eta haiekin euskaraz mintzatzen naiz, eta haiek euskaraz ari dira nere burasoekin. Erdian egon zitekeen belaunaldi bat euskara gal zezakeena. Orain izan daiteke berreskuratu dugula eta gainera transmizioa bada hurrengo belaunaldirako.

### **Zure familian bazen kantatzeko ohidurarik ?**

Ez. Uste dut Euskal Herri osoan beti izan dela kantatzeko ohitura. Gure etxean akordeoiarekiko afizioa izan da. Txikitan denok akordeoia ikasi genuen. Etxean bertan ez zegoen kantatzeko edo musika egiteko ohidurarik. Bainan Euskal Herrian ezin da etxeetat hitz egin, errealitate kolektibo bat ere badago. Jendea ez da bakarrik etxean bizi, biziaren zati handia egiten da auzoan, plazan eta hor musika asko egiten da. Gu musikarekin hezitu egin gara. Ttikiak ginenean kazeta klandestinoak pasatzen ziren etxez etxe : Txabi Etxeberriarekin Imanolek egin kantuak, Errobiren lehen diskoa, Peio eta Pantxoa edo Gontzal Mendibilen jaialdiak... Itziaren semea debekatua bazen ere, etxez etxe pasatzen zen. Auzoetako plazetan beti musikari batzu baziren. Nik auzoko biziaren orroitzapen aintz ditut. Ipar Euskal Herrian eredu europeago bat zen, eta hemen beste giro bat, eta gaurregun ere bai. Oraino ere auzoko bizi oso garrantzitsua da, eta auzoan mugimendu asko izaten da.



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

### **Zoin dira kantuari lotzen dituzun orroitzapen hoberenak?**

Bada kantu bat, orain ere entzuten dudalarik azal pikota jartzen nauena. Imanolek kantatzen zuen :

Lehengo batean

Kalearen erdian

Bentaondo herrian

Sabino anaia hil dute

Eta gu gure eguneroko patxada merkean

Lasai bizi gera.

Ez da behar bada hain kanta ona, bainan nola lotzen dudan tentsio handiko egoera batekin... Izugarria zen.

Burgoseko epaiketaren kazetak ere pasatzen ziren, nahiz ez zen musikarik...

Gero berehala izan genuen Elvis Presleyren disko bat, The Beatlesenak eta euskaraz rock and rollarekin izan dudan lehen harremana, beste askok bezala Errobirekin izan zen.

Hondarribiko euskal merkatuan erosi genuen. Hortan liburu klandestino batzuk saltzen ziren. Errobiren lehen diskoa iparraldean argitaratu zenez, horrela erosi genuen. Horrenbeste eragin izan zuen neregana nun Negu Gorriakekin “Aitarik ez dut” kantua bertsioneatu genuen. Erreferentzia nagusia izan da Euskal Herri guzian. Behar bada belaunaldi berriek ez dute ezagutzen, bainan lehenengoa izan zen eta izugarria izan zen. Hastapenean dantzaldi taldeak ziren kanpoko musikak euskaratzen zituztenak, Minxoriak, Koska, Lisker. Bainan bertan rock and rolla egiten Errobi eta Niko Etxart izan ziren. Oraingoek beste erreferentzia batzuk dituzte : Hertzainak, Zarama, ni...

Garai batean oso inportantea zen erratea : “Hori euskaraz egin daiteke!”

### **Zuk erreferentzia asko badituzu Euskal Herritik kanpo. Nola bizi duzu zure euskal nortasuna eta kanpoko eragina?**

Beti naturalki bizi izan dut hori. Gitarra bat erosteko Londresera joan nintzen, hemengo aduanatik ateratzen ziren kamionetan... Nik horrela bidaiia asko egin ditut. Horrela ibili naiz Holandan, Alemanian eta Ingalaterran bi aldiz. Joan ginen “esplanada”-ra eta hor galdetzen genuen. Normalean beti prest egoten ziren zu eramateko konpainia egiten zeniolako, eta joan-etorria dohainik egiten genuen. Horrela erosi nuen nere lehen gitarra. Hori punk garaian gertatu zen eta Londresera nintzenean kontzertuak ikusten nituen (U.K Subs,...) eta hango giroan sartzen nintzen. Gero Irunen aukera asko bagenituen gauzak jasotzeko. Diskoak Baionan erosten genituen, edo Donibane Lohizunen. Han diskoak erosten ahal ziren eta hemen ez. Lehen reggae diskoak bainan berdin beste disko batzuk hor erosten genituen hemen lortzeko zaila baitzen. Irunen beti konektatuak izan gara : bideak, treina. Neri beti gustatu izan zait mugitzea.



### **Harreman konkretuak badituzu kanpoko talde batzuekin?**

Bai. Kortaturekin egin genituen lehen kontzertuetan hasi ginen hemendik ateratzen. Euskal Herriko bazter guziak miatu eta gero, hasi ginen mugitzen estatu espainolean eta gero estatu frantsesean. Jendeak deitzen gintuen. Orain bezala giza mugimendu haundiak ziren : irrati libreak, asanbladak, errepresioaren kontrako taldeak. Deitzen gintuzten eta kontzertuak antolatzen zituzten. Hasieratik mugimendu internazionalista batean sartuak ginen. Gure seigarren kantua “Nicaragua Sandinista” izan zen... Gai batzuk nahiz eta oso gureak izan ere, kanpoko jendeak beretzat hartzen zituen. Guk “Mierda de ciudad” kantatzen genuen Z.E.N. plana Barrionuevok ezarri zuelako, eta Irunen sekulako eragina izan zuelako. Hainbat aldiz komisaldegirat joaten ginen dokumentazioa ez izateagatik. Bainan Europa osoan betidanik izan da obsesio bat kontrol polizialarekin, orduan jendeak hartzen zuen berea izan balitz bezala. Nahiz kantu bakoitza modu subjektiboan tratatu, bakoitzaren sentimenduen gatik edo, jendea hitzekin identifikatzen zen.

### **Zu gaztetik politizatua izan zara. Zerk edo nork hazi du zutan konzientzia hori?**

Ni musikan sartu baino lehenago, G.A.I. (Gazte Abertzale Iraultzaileak)-eko militantea izan nintzen, gero Kas-Gazteriak-en eta gero Jarrairen sorreran. Jarrairen lehen kongresua eta gero atera nintzen, bainan harremanetan jarraitzen nuen.

Gure etxean ez zen horrelako konzientziarik, egundoko beldurra zegoen etxe askotan bezala. Nere aitona-amonak errefuxiatuak ibiliak ziren Ainhoan guda zibilaren ondotik. Handik bi urteetara itzuli ziren. Erbestea eta errepresio politikoarekin kristoren beldurra zegoen. Abertzaleak ziren baina oso inplikazio guttirik. Oso jende gutti egon zen inplikaturik. Frankismo garaian jende asko anti-frankista zela esatea gezurra da. Oso jende gutti mugitu zen.

### **Noiz hasi zinen kantuz?**

Hogoi urtekin. 84an maketa atera eta jotzen hasi. Aitzineko urtean prestatzen ibili ginen, zuzenean jo gabe. Gero 1988ko urriaren 1ean desegin genuen Kortatu taldea. Argi geneukan beste aro berri bati ekin behar geniola eta urte bat jo gabe egon ondoren, Negu Gorriak sortu genuen. 1988an hasi nintzen Egin Irratian gauero Igo Bolumena magazina egiten eta ondoko urtean Negu Gorriak sortu zen. Lehen diskoa 1990ean plazaratu genuen eta 1991n, bigarren lanarekin birak egiten hasi ginen beste planteamendu batekin. Kortaturekin joaten ginen deitzen gintuzten toki guzietara. Hor pentsatu genuen birak antolatzea, beste taldeek nola egiten zuten ikasi genuelako ere. Hilabete bat edo beste hartu, saiatu ahalik eta leku gehienetan jotzen, gelditu eta berriz materiala berria prestatu edo...

### **Kantatzen eta kantuak egiten hasi zarelarik zer zen zure helburua? Zure buruari plazer egitea edo/ta mezu bat pasaraztea?**

Hastapenetik gogo izugarria izan dut gauzen adierazteko eta hori kantuen bidez lortu dut. Hori izan da nere helburua. Bainan denbora berean terapia bat da. Zenbait gauzek itotzen ninduten, min egiten zidaten, zenbait sentipen nintuen. Zenbait gauza adierazteko nintuen, idazteko beharra sentitzen nuen, eta hori kantuen bidez egiten nuen. Hori jarraitzen dut egiten orain ere.



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Terapia horrekin ez dut esan nahi gaixorik naizenik, bainan hitz egiteko modu bat da. Sarrionaindiak garbiki esaten zuen “Hitzen ondoeza” liburuan “zenbait gauza esateko beharra neukan”, eta horregatik idatzi zuela liburu hori. Hori irakurtzean, pentsatu nuen gauza ber-bera gertatu zitzaidala. Bestalde zutabeak idatzi izan ditut Eginen, Argian eta hori ere gustatzen zitzaidan. Bainan denbora gutti daukadanez, hori utzi nuen.

### **Zoinek hartzen dautzu denbora gehien, kantuen egitea edo musiken egitea?**

Neretzat biak oso lotuak daude. Melodia bat ateratzen bazait, lelo batekin atxikitzen dut. Gero musika egina daukadanean hitzak landu behar ditut. Beste gauza bat da beste egile baten testoa erabiltzea, Bertold Brechten hitzak musikatu genituenean edo beste batek musika ekarri eta hitzak sortu behar ditudalarik, nere azken diskorako Manu Chaoekin gertatu bezala... Bainan normalean melodia batetik abiatu eta gero hitzak ondo lantzen ditut musikari egokitzeko. Azken diskoan nik eginak ditut hitz eta musika gehienak. Beste gauza bat da beste musikari batzuekin elkartzea, bakoitzak bere ekarpenak egiten baiditu. Horrek kantua aberasten du.

### **Erran daiteke badela euskal kanturik, euskal musikarik?**

Neretzeko oso argi da euskal musika dela euskaraz egiten dena. Diferentzia oso nabarmena du. Euskara berak, beste edozein hizkuntzak bezala badu musikalitate berezia. Edozein hizkuntzak badu inplizituki musikalitate bat. Hizkuntza horretan edozein kantu abesten duzunean, ikutu berezi bat ematen diozu, hau da, hizkuntza berak ematen diona bere musikalitatearekin. Horregatik iduritzen zait euskal musika badela, eta euskal musika dela euskaraz egiten dena. Kantu bat entzuten duzularik, nahiz eta heavy metala izan, euskaraz baldin bada beste genero bat sortu duzu. Beste genero bat heavy metalaren barruan, hau da euskaraz egiten dena, eta hori euskal musika da.

Nik eztabaida haundiak izan ditut esaten zidatelako rock and rolla ez zela hemengo musika, hemengo trikititxa zela. Hori gezurra da. Trikititxa mende honetako musika da. Langile italiarrek ekarritako instrumentua da. Orain ere, rocka edo hemendik pasatzen den edozein musika mota hartzeko gai gara, bai eta beste musikekin uztartzeko. Neretzat inportantea da bakoitzak bere hizkuntzan egitea. Horregatik neretzat euskal musika da euskaraz egiten dena.

### **Nola uztartzen dituzu zuk zure ideiak, zure bizi pertsonala, nahi ala ez duzun fama? Ez ditaike errexa?**

Antolakuntza arazo bat bada. Gauza askotan sarturik nago. Ez da batere gauza bera musikan bakarrik aritzea, edo musikarekin batera konpromisu bat eramatea Euskal Herriko gauza askorekin. Iduritzen zait ikuspegi orokor bat badudala gertatzen denarekin, bai Euskal Herrian, bai kanpoan. Gauza bat da kantatzea, gauzak adieraztea, kontatzea eta zabaltzea, eta beste bat errealitatearekin bat egitea eta saiatzea ahalik eta koheranteen izatea. Ni betidanik independentziaren





aldekoa izan naiz, baina ez bakarrik amesten dudana Euskal Herriko independentziaren aldekoa, nahiz eta horren alde borrokatu, independentzia pertsonalaren aldekoa ere bai. Lotura handia dago auto-gestioaren eta egiten dudanaren inguruan. Ez izatea inoren menpe. Ez egotea inoren zain jakiteko zer egin behar dudana eta nola egin behar dugun. Hori dela eta, musikaren inguruan zigilu bat sortu genuen. Zenbait eredu bagenituen, hala nola Ian Mac Kay eta Dischord zigilua, Jello Biaffra eta Alternatives Tentacles... Beren taldearen inguruan, diskete bat sortzeko gai izan ziren, eta diskete horrek ateratzen zituen taldeak bultzatzen zituen. Eredu horiek hartuz Esan Ozenki sortu genuen badu 9 urte. Talde batzu atera genituen eta hori oso garrantzitsua da neretzat. Disko berri bat ateratzen dugun aldiro poz izugarria daukat. Gero Gora Herriak zigilua sortu genuen kanpoan ezagutu taldeak hemen ezagutarazteko eta hemengo taldeak kanpora eramateko, erran nahi baita zubiak eraikitzeke. Hori oinarri sendoa da egiten duzun lana babesteko, baina ere plataforma delako, taldeeri eta jende askori adierazteko tartea uzten diezulako.

Bestalde lotura izan dut Herri Batasuna eta Euskal Herriarrokekin, hala nola azkeneko zerrendan hor nengoen. Gero kanpoan gertatzen dena bidaien bidez segitzen dut. Venezuelara joaten banaiz Carracasera jotzera, joaten naiz hango jendeekin eta jakiten dut zer gertatzen den. Argentinan "Madres de plaza de Mayo"-koekin elkartu ginen, Txilen Victor Jararen alargunarekin egon ginen... Edozein herritan, ez da bakarrik musikari artean biltzea, baizik eta herrian bertan dagoen jendeekin, zenbait kolektiboekin biltzea. Harremanak hortik sortzen dira.

Eromena dela umeak dituzalako? Batzuetan egia da. Uste dut dena antolakuntzan oinarritzen dela. Bira kontu horiekin badakit noiz izango naizen hemen eta noiz ez, eta horrela dena planifikatzen dut.

**Maiz erraten da euskaldunak hetsiak gabela, gure nortasunari atxikiak etabar. Ez duzu uste zu arriskutsua atxematzen zaituztela prototipo horiek hausten dituzulako hain zuzen militantea eta unibertsala zarelako denbora berean?**

Hori beti interesatua izan da. Nik gogoratzen dut Buesak esan zuen 1992an, euskara bakarrik etxean baliatzeko on zela. Betidanik egon da irakurketa interesatua, deskalifikatzeko. Ainitzetan kanpoan gai horri buruz defenditu behar izan naiz. Nik uste dut bakoitzak puxkatzen dituela estereotipo horiek. Bizian daramazun jarrera da balio duena.

Betidanik erreferentzia batzu izan dira, eta zuregan eragina izan duten jendeak. Ez dago belaunaldi espontaneorik. Numbaitetik gero, ez gara bat-batean sortuak. Oinarri sendo bat izan dut lehendik ere. Euskal Herrian kantari asko izan dira, eta izan duten euskaraz kantatzeko kemena. Neri Itoiz musikalki ez zitzaidan gehiegi gustatzen, baina badakit eskaintzak izan zituztela Espainian espainolez kantatzeko, eta Frantzian frantsesez kantatzeko. Bere euskaraz kantatu nahiago zutela esan zuten. Horrelako gauza tipiekin ere beste pertsona askoren nortasuna garatzen da. Neretzat horrelako gauzak oso garrantzitsuak izan ziren. Erreferentziak dira. Mikel Laboa bezalako gizon bat bere adinarekin, esperimendatzen, aitzindari eta besteok egiten genuenarekin oso erne izatea... eta gure kontzertuetara joatea...



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Negu Gorriaken kontzertuetara etortzen zen . Horrelako gauzekin lotura asko hartzen duzu. Ruper Ordorika etorri zen “Sarri Sarri” grabatu genuenean, gu euskara ahoskatzen erakustera. Beste belaunaldietako kantariak gurekin harremanetan gelditu dira, eta gu ere besteekin, eta beste batzu ateratzen direnean, ez baldin badute onartzen ere, guk jakinen dugu badutela aspalditik heldu den ondare bat. Kate bat badago, eta uste dut hori Euskal Herrian garrantzitsua dela. Beste herri batzuetan kate hori beste modu batzuetan egin da. Horregatik kontatu dut nola zintak pasatzen ziren etxez etxe. Gogoratzen dut Gontzal Mendibil ikustera joan nintzenean Irunen. Ikurriña ilegala zen eta atera zuten. Orduan garai hartako grisak etorri ziren eta lasterka ihes egin behar genuen. Pertsona bat horrelako esperientzekin egiten da. Gero munduak buelta asko ematen ditu, eta berdin bizkarra ematen diezu zure bizipenei, baina nik gauza guzi horiek oso garbi dauzkat.

Negu Gorriaken kontzertuetara etortzen zen . Horrelako gauzekin lotura asko hartzen duzu. Ruper Ordorika etorri zen “Sarri Sarri” grabatu genuenean, gu euskara ahoskatzen erakustera. Beste belaunaldietako kantariak gurekin harremanetan gelditu dira, eta gu ere besteekin, eta beste batzu ateratzen direnean, ez baldin badute onartzen ere, guk jakinen dugu badutela aspalditik heldu den ondare bat. Kate bat badago, eta uste dut hori Euskal Herrian garrantzitsua dela. Beste herri batzuetan kate hori beste modu batzuetan egin da. Horregatik kontatu dut nola zintak pasatzen ziren etxez etxe. Gogoratzen dut Gontzal Mendibil ikustera joan nintzenean Irunen. Ikurriña ilegala zen eta atera zuten. Orduan garai hartako grisak etorri ziren eta lasterka ihes egin behar genuen. Pertsona bat horrelako esperientzekin egiten da. Gero munduak buelta asko ematen ditu, eta berdin bizkarra ematen diezu zure bizipenei, baina nik gauza guzi horiek oso garbi dauzkat.

### **Uste duzu kantua euskaldunen ezaugarri garrantzitsu bat dela?**

Ez hemen bereziki. Herri guzietan. Gauza da hemen bazkariak, afariak beti kantuekin bukatu izan direla, baina beste herri askotan ere bai. Italian egon naizenean jendea kantatzen hasten zen. Kantua kultura bakoitzaren ezaugarria da. Zihur nago toki guzietan kantua oso modu naturala izan dela herri baten nortasuna adierazteko.

### **Nola ikusten duzu musikaren eta kantuaren geroa Euskal Herrian?**

Nik oso garatua ikusten dut. Oso denbora guttitan munduan dauden musika korrante guziak asimilatzeke gai izan gara, gure musika korranteekin uztartuz. Neretzat dagoen gauzarik garrantzitsuena, euskaraz edozein estilo musikala lan daitekeela da. Horren lekuko talde asko ateratzen ari dira azken urteetan musika euskaraz egiten. Orain rock erradikala deitu garain jorratu azpiegitura bada : zigilu independenteak, aldizkariak, egunkari guzietan musikari buruzko osagarriak badira, irati askotan leku egiten diote euskal musikari. Etorkizun handia ikusten diot Euskal Herriko musikari. Esan dezakegu musikan euskaldunok independenteak garela. Ez dugu beste inoren beharrik. Disketxeak, komunikabideak hemen ditugu eta hor gure eremu librea badaukagu.



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

### **Zu beti urrun izan zara Elizako eraginetik...**

Guk hemen borroka handia izan dugu Elizarekin. Horregatik “Jaungoikoak eta lege zaharrak” kantuan inkisizioaren kontrako gauzak kantatzen genituen. Manifestazio ateoak antolatzen genituen Aste Santuan! Kontra borrokatu gara hemen eragin handia izan duelako. Beren arauak, errepresio sexualak eragin handia izan du gure heziketan, borrokatu ginen horren kontra. Ez ginen Elizetara joaten, ez da pentsatu ere. Dakigun kanta bakarra Evaristo-k kantatu “Salve” da.

### **Oro har, zenbat diska atera dituzu?**

Lau Kortaturekin (3+bat zuzenean)- maxiak kendu eta-, Negu Gorriakekin sei, Dutekin beste bat, EL Europeo Madrilgo disketxeak bilduma bat atera du nik egindako testu eta kantuekin, eta orain Brigadistak Sound System atera dut. Beraz hamabi baino gehiago.

### **Eta zenbat kantu?**

Ez dakit. Asko.

### **Kantuketan erakusketan, zer mezu gustatuko litzaizuke pasaraztea?**

Nik ez dut sekulan ikusi musika proposatzen duen erakusketarik. Neretzat musika oso gauza bizia izan da. Beraz horrelako leku batean iduritzen zait oso “enlatatua” bezala aurkezten dela, ikusleen eta musikarien arteko komunikazio hura galtzen delako. Nik jendeeri kontzertuetara joateko aholkua emanen nieke. Adibidez, edonori esanen nioke sekulako erakusketa dela Arrosako jaialdia. Ez da bakarrik ikusten talde batek nola jotzen duen, herri bat mugimenduan ikusten da. Nola jendea prest dagoen lan egiteko bolondres bezala sinisten duenarengatik.

Hor ageri da Euskal Herrian beste fenomeno bat badela musikaren inguruan bat ondo atera dadin, dirua ateratzeko elkarte kulturalak eta urtean zehar egoten diren gastueri aurre egiteko. Ez dakit zenbat bolondres ziren karpa, txosnak muntatzeko. Ikusteko taldeen eta ikusleen artean zer giro dagoen, taldeen eta antolatzaileen artean, askotan hori ez baita horrela.